**Bihar 18.00etan Mendizorrotzan jokatuko den Eibar FT eta Alavesen arteko derbirako** akordio batera iritsi dira talde bietako ordezkaritzak. Horrela, partidu bietako sarrerak prezio berean izango dira aurkariaren zaletuentzat. Eibar FT-ak 400 sarrera eskatu dizkio Alavesi biharko: 300 helduentzat (20 eurotan) eta 100 umeentzat (8 euro). Bestalde, Premier Bidaiak-ek antolatutako autobusetan Gasteizera joateko gaur 13.30ak arte eman daiteke izena.



*Gasteizen jokatuko den derbira bederatzi puntuko aldearekin doa Eibar FT.*

## berriak

### BIHAR KIROLDEGIAN

Bihar jokatuko den XXV. Gabon Kopa igeriketa lehiaketa dela-eta, Ipuruako igerilekua itxita egongo da 16.00etatik 20.00ak arte. Bestalde, jokoan izango den XVII. Arkulariak Ligak Ipuruako 1. kirol pista hartuko du 11.00etatik 14.00etara.

### KIROL SARIAK

Orain arte beti Portalean egin den Gabon Zahar eguneko Eibarko Kirol Sariak banatzeko ekitaldia aurten Coliseoan egingo da. Tokia izango da aldaketa bakarra, orduari eta beste guztiari eutsi egingo baitzaio: abenduaren 31n, eguerdiko 12.00etan, hasiko da.



*Raul Nieto goleatzailea.*

# Concepto Egilek berdindu egin zuen Ibarrako derbian

**Belabietan jokatutako probintziako bi talde onenen arteko lehian,** bina berdindu zuten areto-foballeko 2. B mailako Ibarrak eta Concepto Egilek. Epaileek hartutako Debabarrenekoen aurkako erabakiak ez zieten laga hiru puntuak etxera ekartzen eta, Raul Nietok lortutako bi golei esker, berdinketa behintzat eskuratu zuten. Kadeteetan, Sukiak 4-14 irabazi zion Laskorain Ikastolari; infantiletan, bestalde, klubeko bi ordezkarien arteko lehia izan zen, Sukia 11-0 nagusituz Debabarrenari.

# Urkiko neskak Gasteizko torneoan

**Urkiko nesken infantil mailako taldeak aukera ona galdu zuen** Gasteizko torneoa bereganatzeko. Goizez Izarrari (4-0), T. Gasteizi (7-0) eta Lakuari (8-0) irabazi eta gero, Finalerdietan Izarrarekin 2-0 galdu zuten eta, 3. eta 4. postua lortzeko borrokan, San Viatorri 2-1 irabazi. Azkenean hirugarren postuarekin konformatu behar izan zuten, baina torneoko joko onena erakutsi zuten.









# Ikuskizun musikal arrakastatsua

**Aurreko domekan Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako ikasleek** Cielito Musika Bandarekin batera eskainitako "Benan eta Begigorri Munstroa" ikuskizun musikalak arrakasta handia izan zuen eta emanaldi bietan Coliseo antzokia bete-beteta egon zen. Musika Eskolakoek lehenengoz egin dute horrelako ikuskizuna eta taula gainean 150 bat lagun elkartu ziren Michael Hurd-ek idatzitako "Jonahman jazz" lanaren euskerazko bertsioa eskaintzeko.



*150 bat lagun elkartu ziren Coliseoko taula gainean.* LEIRE ITURBE



Erakusketa "Kultu"ko Topalekuan

# Presoen artelanak Topalekuan

**Gaur arratsaldean zabalduko dute presoen artelanekin osatutako erakusketa** Topalekuan, Arrate Kultur Elkartearen erakusketa aretoan. Hilaren 29ra arte egunero zabalduko dute, 19.00etatik 21.00etara (hilaren 25ean itxita egongo da). Bertan 24 urte kartzelan eman eta gero hilaren hasieran askatu duten Mikel Zarrabek tintaz egindako margolanak, Ateramiñeren liburuak eta Ibon Muñoaren bertso eta olerkiak batuko dituzte. Gaurko inaugurazioaren aitzakiarekin, 19.30-etan Jokin Urainek "Agurra eta Ohorea" liburua aurkeztuko du eta Josu Gilek Muñoaren testuetako batzuk abestuko ditu, besteak beste.

# Karmelitetako organoaren mende erdia

**Aurreko asteburuan Karmengo Amaren elizan kontzertu berezia eman zuten** Javier Epelde, Iñaki Zarrabe eta Juan Luis Agirre organo-joleek, beste hainbat musikarik eta Sostoa abesbatzak lagunduta. Karmelitetako organoak 50 urte bete dituela-eta, zaharberritu egin dute. Mende erdia ospatzeko kontzertura joandakoek organoa sasoi betean dagoela zuzenean entzuteko aukera paregabea izan zuten.



LEIRE ITURBE

# Eibarko Ekintzaileak lehiaketako irabazleak

**Astelehenean banatu zituzten Juan San Martin liburutegian** Eibarko Ekintzaileak lehiaketako sariak. Umeen mailan Alex Ugarteburu Boullosa nagusitu da eta sail irekian, berriz, Arantza Belategi Kruzelaegi. Denera 44 lagunek hartu dute parte Udalak antolatutako lehiaketaren azken asteko galdera sortari erantzunez.



© Félix Morquecho 2013

# Deporreko argazkilariak martxa betean

**Aurreko asteko barixakuan inauguratu zuten Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldekoek** urtarrilaren 5era arte ikusgai egongo den erakusketa kolektiboa Portalean. Bertan Virginia Arakistain, Pedro Mora, Juan Antonio Palacios, Jose Luis Irigoien, Jose Luis Martinez, Zigor Astigarraga, Vicente Eizagaetxeberria, Jose Vila, Enrique Albistegi, Jon Jimenez, Eduardo Magunazelaia, Enrique Lorenzo, Jose Manuel Lucena, Juan Ignazio Aizpurua, Pedro Arriola, Mikel Orozko, Javier Pozuelo, Rafa Sola eta Jose Valderrey Deporreko argazkilarien lanak ikus daitezke, martitzenetik domekara 18.30etatik 20.30etara. Inaugurazioarekin bat egin zuen, bestalde, Portalean bertan Gabriel Brauk asteburuan eman duen argazkilaritza ikastaroaren hasierak. Horregatik, oraingoan erakusketa aretoan baino argazkilari gehiago elkartu zen ikastaro-gelan. Eta Deporreko argazkilariek antolatuta, abenduaren 31ra arte hiru erakusketa egongo dira martxan beste horrenbeste tabernatan: Anbigun Joan Buxoren argazkiak daude ikusgai, Portaleko tabernan Enrique Lorenzorenak eta Deporren, berriz, 2013ko argazkilaritza ikastaroan parte hartu dutenen lanak.

# Trio Medianoche gaur gauean Coliseoan

**Latinamerikako doinuek arrakasta handia izan dute betidanik gurean** eta, zaletasun horrek erakarrita sortu da hain zuzen ere Trio Medianoche: orain dela zazpi hilabete Pedro Bartra (lehen ahotsa eta gitarra), Bernardo Aguilera (bigarren ahotsa eta rekintoa) eta Jesus Mari Bastida (hirugarren ahotsa eta gitarra) batu eta hirukotea sortu zuten. Eguaztenean egindako aurkezpenean azaldu zutenez, ilusio handiarekin igoko dira gaur Coliseoko taula gainera. 20.30etan hasiko den emanaldian Los Panchos taldearen boleroak eta Los Tres Reyes hirukotearen balsak joko dituztela aurreratu dute. Gainera, ikuskizuna biribiltzeko Jorge Truebak kontrabaxuarekin, Omarrek perkusioarekin eta Sergiok harparekin lagunduko die. Bestalde, Euskal Telebistak kontzertua grabatuko du, aurrerago emititzeko asmoz eta aurreko hilean Elgetan eskaini zuten emanaldia DVD-an eskuratzeko aukera ere izango da.



*Jesus Mari Bastida eta Bernardo Aguilera kontzertuaren aurkezpenean.* Silbia Hernandez




# Arrabuelta Fest jaia

**Gaur 23.30etatik aurrera Arrabuelta Fest jaia hartuko du Punto y Aparte diskotekak**, Arragueta Fest kolektiboak antolatuta, Laugarrenez egingo den jaia girotzen Las Tea Party-k eta Dj Karbak jardungo dute eta, antolatzaileek aurreratu dutenez, musikaz gain hainbat sorpresa egongo dira jaian. Sarrerak aldez aurretik erosita (Ez Dok, Katu Kale edo Tas-Tas tabernetan edo www.ticketea.com/arragueta-fest helbidean ) 6 euro balio du eta, bestela, leihatilan erosita 8 euro ordaindu beharko dira.

## laburrak

### GABON KONTZERTUA

**Sostoa abesbatzak Gabonetako kontzertua emango du domekan, 20.00etan, San Andres elizan. Datorren urtean abesbatzaren sorreraren 30. urteurrena beteko dela-eta, aurtengo kontzertua are bereziago egin nahi izan dute: kontzertua pantaila bidez jarraitzeko aukera izango du jendeak eta abesbatzak oboe, biolin eta Jon Zarrabe organo-jolearen laguntza izango du. Bestalde, Gabonetako otarraren zozketa 19.00etatik 21.00etara egingo dute T. Etxebarria kalean.**

### TXISTULARIAK

**Usartza txistulari taldeak Gabonetako kontzertua emango du domekan, 12.30etan udaletxeko arkupeetan: "Deika" ( J.I. Ansorena), "Eguberriko Zazpi kanta" (J.I. Ansorena), "Alborada Navideña II" (Luis Urteaga), "Alborada Navideña IV" (Luis Urteaga), "Aingeruetazko soinuak" (Lorenzo Ondarra), "Bi bilantziko + Din dan Don" (Mold. J.I.Ansorena), "Minuetoa" (Eusebio Basurko), "Gabon Abestiak" (Isidro Ansorena) eta "Atzerriko Eguberria" (J.I.Ansorena) joko dituzte, Elena Perezek zuzenduta.**

# Umeendako antzezlana 30ean

**Glu Glu Producciones taldeak "Hansel eta Gretel", Grimm anaien ipuin klasikoan oinarritutako** antzezlana eskainiko du Coliseoan hilaren 30ean, 17.00etatik aurrera (5 euro). Ipuinaren egokitzapen honi, denok ezagutzen dugun istorioari jarraitu arren, gaur egungo osagai eszeniko eta musikalak gehitu dizkiote. Galder Perezek zuzenduta, antzezleak Ylenia Baglietto eibartarra, Ugaitz Alegria eta Gabriel Ocina dira.



San Andres Gozotegia
• tartak
• enkarguak
etxera
Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73




BODEGA VINAGRE
Pintxoak
Razioak
Ogitartekoak
Egunero
07.00etatik zabalik
Asteburuetan
10.00etatik aurrera

# zenbaki irabazlea 1.140




## Urtarrilaren 3rako

*ez bada irabazlea aurkezten ordezkoak sartuko dira jokoan orden honi jarraituz:*

## ORDEZKOAK

**4.114** (urtarrilaren 17ra arte)
**4.902** (urtarrilaren 31ra arte)
**5.288** (otsailaren 14ra arte)
**10.116** (otsailaren 28ra arte)

## Eskerrik asko Eibarko herriari!!!




ESKERRIK ASKO
Arriaundi
Bolintxo
Depor taberna
Ego Gain taberna
El Corte Ingles
...eta kitto!
Echetto - Urkizu
Guridi taberna
Isasi okindegia
Izadi loradenda
Kultu taberna
La Golosina
Maria Ospitxal
Mugika harategia
Ogi Berri - Urkizu
Otegi harategia
Udal Euskaltegia
Untzaga prentsa
Valenciaga
Zubi-Gain taberna
ZUEN LAGUNTZARENGATIK

Lortutako dirua **EIBARREN EUSKARAREN ALDE** erabiliko dugu

## Produktuak

- 40''ko 'OKI' telebista
- 'Micsa' ezkur-urdaiazpikoa
- Solomo trufatua
- 'Don Bernardo Oro' gaztaia
- Salamankako ezkur-txorizoa
- Salamankako ezkur-saltxitxoia
- Ahate 'Delicass' foie-a
- 'Martiko' Confit ahate-izterra
- 'Sierra Monesterio' ezkur-solomo zorroak
- Ahate jamoia
- 'Julian Martin' askotariko iberikoa
- 'Vasco Navarra' ardi gazta
- 'Sierra Monesterio' ezkur-jamoi zorroak
- Micuit 'Rougie' Gourmet
- 'Dos Cafeteras' gozokiak
- 185 gramoko Chatka lata
- Pikillo piper saltsa. 278 ml
- 'El Barco' txokolatea
- 'El Barco' txokolate zuria
- Madari osoa ardotan
- '1880' txokolate-almendra turroia
- 'La Higuera' piku bonboia
- 'Gorrotxategi' teilak
- 'C. Gourmet' turroi gogorra
- 'C. Gourmet' turroi biguna
- 'C. Gourmet' trufa-turroia
- 'Soles de Gredos' hojaldretxoak
- 'Gyulian' itsas fruituak
- 'Cascajares' esne-bildots hanka
- Gin Tonic-erako espezia estutxea
- Champagne 'Bruno Paillard'
- Champagne 'Rosse Ruinart'
- Champagne 'Moet Chandom' estutxea
- Eskoziako 'Chivas Regal' whisky-a
- 'Matusalem' rona. 23 botila.
- 'Plymouth' Ginebra
- 'Qtonic' 4 tonikako Paka
- 'Conde Osborne' Coignac-a
- 'Level' Vodka
- 'Marques de Riscal' 150 Aniversario ardo beltza
- 'Albariño Martin Codax' ardo zuria
- 'Julian Chivite 150 aniversario' ardo gorria
- 'Gourmet Blancos D. O.' zainzuriak
- 'D. O. Gourmet Frasco' piperrak
- 'D. O. Catedral Frasco' alkatxofak
- 'Thes D origin Le Palais' estutxea
- Jamaicako kafea
- 'Elfos' trufa zuri olioa
- 'Elfos' trufa beltz olioa
- 'Gourmandises' kokoak
- 'L ´Himalayen' gatz larrosa
- 2 'Ibardin' confit
- 2 'Lafitte' confit

# laztanak emoten...

**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.**



Zorionak, NORA, gure printzesa, bixar lau urte haundi egingo dozuz-eta! Etxeko guztien partez.



Zorionak, GARI, astelehenian hiru urte beteko dozuzelako. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, JARA Larreategi, hillaren 15ian bi urte egin zenduazelako. Etxekuen eta, batez be zure ahizta Maddiren partez.



Zorionak, AINHOA Egurrola, lau urte egin dozuz-eta. Muxu haundi bat gure printzesarentzat. Etxekuen partez.



Zorionak, MARKEL, atzo hamar urte egin zenduazelako. Famelixa guztiaren partez.



IZARNE Laskurain Ereño. Gozatu Santo Tomas eguna, txistorra artian zure 15. urtebetetzia ospatzeko egun aproposena. Etxekuak.



Zorionak, ALAITZ, hillaren 14an sei urte egin zenduazen-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, JULEN, haraiñegun bost urte potolo bete zeduazen-eta, pirata! Famelixaren eta, batez be, Odilen partez.



Zorionak, EIDER, domekan lau urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, AITOR, hillaren 25ian hiru urte egingo dozuzelako. Muxu haundi bat aitatxo, amatxo eta Pabloren partez.



Zorionak, JUNE Alkorta, hillaren 7xan lau urte egin zenduazen-eta. Patxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, NORA!, 17xan gure etxeko printzesak 7 urte egin zittuan-eta. Patxo potolua gurasuen eta, batez be, Iker eta Maialenen partez.



Zorionak, JULENE (azaruaren 30ian zortzi urte) eta EÑAUT (abenduaren 18xan sei). Muxu haundi bat etxeko danon partez!



Zorionak, MARTIN eta PAULA, zuen 4. eta 8. urtebetetzietan, eta ongi-etorri, Maria. Muxu haundi bat Markelen partez.





Zorionak, IRATI eta LORE, atzo 12 urte egin zenduezen-eta. Etxeko guztien partez.

## zineaColiseoan

**(1 ARETOAN)**
**21ean: 17.00, 19.45, 22.30**
**22an: 17.00, 20.00**
**23an: 22.30**

### "Pacto de silencio"

*Zuzendaria:* **Robert Redford**




**(2 ARETOAN)**
**21ean: 17.00, 19.45, 22.30**
**22an: 17.00, 20.00**
**23an: 22.30**

### "La piedra de la paciencia"

*Zuzendaria:* **Atiq Rahimi**




**(ANTZOKIAN)**
**21ean: 19.15, 22.30**
**22an: 20.00**
**23an: 22.00**

### "El Hobbit" 3D

*Zuzendaria:* **Peter Jackson**




**(ANTZOKIAN)**
**21ean: 17.00**
**22an: 17.00**

### "Vaya pavos" 2D

*Zuzendaria:* **Jimmy Hayward**



## BARIXAKUA 20

### UMEENDAKO FILMA
**17.30.** *"Tiana y el sapo".* El Corte Inglesean.

### EIBART
**18.00.** Eibarko Artisau Azokaren inaugurazioa (urtarrilaren 5era arte goiz eta arratsaldez zabalik).
**19.00.** DJ-a. Eibarko Bizikleta Plazan.

### ZONA 10
**18.30.** Olentzero eta Mari Domingiren bisita. Ibarkurutzeko iturrian.

### GURE ESKU DAGO
**18.30.** Herri ekimenaren aldeko errifa-salmenta. Untzagan (jubilatu etxearen inguruan).

### KONTZERTUA
**20.30.** *"Recordando a Los Panchos"*. Trio Medianoche (10 euro). Coliseoan.

### EKINGUNE
**21.00.** GabonEKIN. Gabon Afaria, ekintzaileentzat. Iruki sagardotegian.

### ARRABUELTA FEST
**23.30.** San Undress Party-a. Las Tea Party eta Dj Karba. Punto y Aparte diskotekan.

## ZAPATUA 21

### IKASTAROA
**10.00/13.30 & 16.00/20.30.** Autodefentsa Feminista ikastaroa. Portalean.

### IGERIKETA
**16.30.** Eibarko XXV. Gabon Kopa. Ipurua kiroldegian.

### TAILERRA
**17.00.** Tailerra: *"Bitxigintza industriala".* Izen-ematea: egunean bertan, 16.00etan (euro bi). Armagintzaren Museoan.

### OLENTZERO
**17.30.** Olentzeroren bisita. El Corte Inglesean.

### IKIROLA FAMILIAN
**17.30/19.30.** Gurasoek lagundutako 2-5 urte bitarteko umeentzat. Ipurua kiroldegian.

### EIBART
**19.00.** Desfilea.
**19.00.** DJ-a. Artisau Azokan (Eibarko Bizikleta Plazan).

## DOMEKA 22

### IKASTAROA
**10.0/13.30.** Autodefentsa Feminista ikastaroa. Portalean.

### ABONTZATOMASAK
**12.00.** Abontzatomasak: txistorra pintxoak, jolasak, zozketak… Batutako dirua Gipuzkoako Elikagaien Bankuari emango diote. Egigurentarrenean.

### KONTZERTUA
**12.30.** Usartza Txistulari Taldearen Gabonetakoa, Elena Perezek zuzenduta. Udaletxeko arkupeetan.

### KIROLA FAMILIAN
**17.30/19.30.** Gurasoek lagundutako 2-5 urte bitarteko umeentzat. Ipurua kiroldegian.

### EIBART
**19.00.** DJ-a. Artisau Azokan (Eibarko Bizikleta Plazan).

### KONTZERTUA
**20.00.** Sostoa abesbatzaren Gabonetakoa. San Andres elizan.

## ASTELEHENA 23

### IKASTEN
**10.00.** *"Mirando al cielo".* Beheko Tokian.

### AURKEZPENA
**20.00.** *"La pelota según Miguel Gallastegui".* Luis Aranberri "Amatiño"-ren liburua. Coliseoan.

## MARTITZENA 24

### OLENTZERO
**18.00.** Olentzeroren kalejira, Pantxikak, Kaleetan Kantuz abesbatzak, J. B. Gisasola Musika Eskolako soinu ikasleek eta trikitilariek lagunduta. Untzaga-Calbeton- Bidebarrieta-Urkizu- Errebal-J. Etxeberria-T. Etxebarria-Untzaga. Amaieran, Olentzerok umeei harrera egingo die udaletxean.

## EGUENA 26

### HAUR-PARKEA
**11.00/14.00 & 17.00/20.30.** Gabonetako haur parkea. Astelena frontoian.

### UMEENDAKO TAILERRA
**17.30.** *"Gabonetako Arbola"*, 3-12 urte bitarteko umeendako tailerra. El Corte Inglesean.

### EIBART
**18.00.** Umeendako tailerra. Artisau Azokan (Eibarko Bizikleta Plazan).

### ODOL-ATERATZEA
**18.30.** Odol-emaileentzat. Anbulategian.

## BARIXAKUA 27

### HAUR-PARKEA
**11.00/14.00 & 17.00/20.30.** Gabonetako haur parkea. Astelena frontoian.

### UMEENDAKO TAILERRA
**17.30.** *"Elur-panpina"*, 3-12 urte bitarteko umeendako tailerra. El Corte Inglesean.

### EIBART
**19.00.** DJ-a. Artisau gonbidatuak.
**19.30.** Kaleetan Kantuz abesbatzaren emanaldia. Artisau Azokan (Eibarko Bizikleta Plazan).

### KONTZERTUA
**22.30.** Revolver taldea (25 euro). Coliseoan.

## hildakoak

- **Luis Alberdi Aizpurua.** 81 urte. 2013-XII-11.
- **Maritxu Iriondo Elorza.** 89 urte. 2013-XII-12.
- **Carmen Rodriguez Conde.** 87 urte. 2013-XII-12.
- **Juan Mª Arizaga Orbe.** 86 urte. 2013-XII-13.
- **Milagros Jauregi Madinabeitia.** 100 urte. 2013-XII-15.
- **Jose Ignacio Tejada Elkoroiribe.** 81 urte. 2013-XII-16.

## jaiotakoak

- **Mounir El Kfaiti Serroukh Benslaiman.** 2013-XI-29.
- **Anas Karmaqui El Ghabali.** 2013-XI-30.
- **Hugo Morcillo Vadillo.** 2013-XII-1.
- **Jone Basaras Perez.** 2013-XII-2.
- **Amir Kabass Berghout.** 2013-XII-4.
- **Mohamed Haddi.** 2013-XII-6.
- **Unax Conde Blanco.** 2013-XII-8.
- **Hiba Cherki Oumribet.** 2013-XII-11.
- **Markel Gonzalez Argintxona.** 2013-XII-13.

## ZAPATUA 28

### HAUR-PARKEA
**11.00/14.00 & 17.00/20.30.** Gabonetako haur parkea. Astelena frontoian.

### TAILERRA
**17.00.** *"Bitxigintza industriala".* Izen-ematea: egunean bertan, 16.00etan (euro bi). Armagintzaren Museoan.

### KIROLA FAMILIAN
**17.30/19.30.** Gurasoek lagundutako 2-5 urte bitarteko umeentzat. Ipurua kiroldegian.

### EIBART
**19.00.** DJ-a. Artisau Azokan (Eibarko Bizikleta Plazan).

## DOMEKA 29

### KIROLA FAMILIAN
**17.30/19.30.** Gurasoek lagundutako 2-5 urte bitarteko umeentzat. Ipurua kiroldegian.

### EIBART
**19.00.** DJ-a. Artisau Azokan (Eibarko Bizikleta Plazan).

# eguraldia (EUSKALMET.NET)




## erakusketak

✔ **Abenduaren 29ra arte**

***MIKEL ZARRABEREN*** margoak, ***ATARAMIÑE*** liburuak, ***IBON MUÑOAREN*** bertso eta olerkiak eta ***JOKIN URAINEN*** "Agurra eta Ohorea" liburua. *Topalekuan.*

✔ **Abenduaren 31ra arte**

***ENRIQUE LORENZOREN*** argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*

***JOAN BUXO-REN*** argazki erakusketa. *El Ambigu tabernan.*

***ARGAZKILARITZA IKASTAROAN*** parte hartu dutenen lanak. *Klub Deportiboan.*




✔ **Urtarrilaren 5era arte**

***EIBARKO KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKI TALDEAREN*** erakusketa. *Portalean.*

✔ **Urtarrilaren 12ra arte**

***MARIA ROMERO LASPIURREN*** margo erakusketa. *Portalean.*

## lehiaketak

✔ **Aratosteak Eibarren kartel lehiaketa**

Lanak aurkeztea eta informazioa: ***urtarrilaren 22ra arte***, Pegoran.

## farmaziak

✔ **barixakua 20**
EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ *Alberdi (Zubiaurre, 9)*

✔ **zapatua 21**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ *Cortina (Zubiaurre, 29)*

✔ **domeka 22**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ *Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)*

✔ **astelehena 23**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

✔ **martitzena 24**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

✔ **eguaztena 25**
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)

✔ **eguena 26**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

✔ **barixakua 27**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

✔ **zapatua 28**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

✔ **domeka 29**
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
GAUEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)

✔ **astelehena 30**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

## SUDOKUA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 6 | 7 | | | | 5 | | 3 | |
| | | | 3 | 9 | | | | 6 |
| | 2 | | | | | | | 7 |
| 4 | | 3 | | 1 | 2 | | | |
| | 9 | | | | | | 6 | |
| | | | 8 | 4 | | 3 | | 2 |
| 9 | | | | | | | 1 | |
| 5 | | | | 6 | 1 | | | |
| | 8 | | 5 | | | | 7 | 9 |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 8 | 5 | 1 | 4 | 9 | 3 | 2 | 7 | 6 |
| 4 | 2 | 6 | 5 | 1 | 7 | 3 | 8 | 9 |
| 9 | 3 | 7 | 6 | 2 | 8 | 4 | 5 | 1 |
| 6 | 4 | 3 | 1 | 7 | 9 | 5 | 2 | 8 |
| 2 | 8 | 9 | 3 | 6 | 5 | 1 | 4 | 7 |
| 1 | 7 | 5 | 8 | 4 | 2 | 6 | 9 | 3 |
| 3 | 6 | 8 | 7 | 5 | 4 | 9 | 1 | 2 |
| 5 | 1 | 2 | 9 | 8 | 6 | 7 | 3 | 4 |
| 7 | 9 | 4 | 2 | 3 | 1 | 8 | 6 | 5 |

AURREKOAREN EMAITZA

## telefono jakingarriak

SOS deiak........................*112*
Pegora.............................*010*
Udaletxea..........*943 70 84 00*
Portalea.............*943 70 84 39*
Udaltzaingoa......*943 20 15 25*
Mankomunitatea *943 70 07 99*
Debegesa..........*943 82 01 10*
KIUB.................*943 20 38 43*
Epaitegia...........*943 03 34 00*
Iberdrola...........*901 20 20 20*
Naturgas............*902 12 34 56*
DYA Larrialdiak..*943 46 46 22*
Gurutze Gorria...*943 22 22 22*
Mendaro osp......*943 03 28 00*
Anbulategia.......*943 03 25 00*
Torrekua...........*943 03 26 50*
Errepideak.........*902 11 20 88*
Ertzaintza..........*943 53 17 00*
Eusko Tren........*902 54 32 10*
Pesa..................*902 10 12 10*
Taxiak...............*943 20 30 71*
........................*943 20 13 25*
Alkohol.Anon.....*629 14 18 74*
Al-Anon/Alateen..*650 26 59 63*

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara orduro. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara orduro. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 13.30etara orduro, 15.00, 15.30etatik 20.30etara orduro eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara orduro, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi orduro, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40-etatik 20.40etara orduro. Jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara orduro. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara orduro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara orduro.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara orduro eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30-etara orduro eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR:** Jaisteko: 20 minutu geroago.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minuturo eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara orduro eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara orduro eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50-etatik 21.10etara 20 minuturo eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara orduro, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

**EIBAR-LOIU.** Egunero: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunero: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara orduro. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20,47etara orduro. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13-etara orduro, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara orduro, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

# 1. Etxebizitza

## 1.1. Salgai

– Pisua salgai Barrena kalean. Erdijantzita eta oso merke. Tel. 669-690391.
– Presa dut pisua saltzeko Errekatxu kalean. 2 logelekoa. Kalefakzioa. Dena jantzita. Tel. 659-757572.

## 1.2. Errentan

– Pisua konpartituko nuke Eibarren. 250 euro ordainduko nituzke hilean. Tel. 660-833346.
– Pisua alokagai Barakaldo kalean. Berriztua. 5. pisuan. Tel. 653-733457.
– Pisua hartuko nuke errentan Eibarren. Tel. 682-688813.

# 2. Motorra

## 2.1. Salgai

– Mercedes Benz E-320 CDI autoa salgai. 224 cv. 117.000 km. 2007. urtekoa. Egoera onean. Tel. 630-975501.

# 3. Lokalak

## 3.1. Salgai

– Garajea salgai Txomon. Marraduna. Tel. 658-710898.

## 3.2. Errentan

– Taberna alokagai Ipuruan. Tel. 651-007411 eta 658-595764.
– Garajea alokagai Ipuruako San Pion. Sarbide erraza. Tel. 669-931925.
– Lokala partekatuko nuke Isasi kalean. 180 euro. Tel. 620-608065.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu,15 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**


**1. ETXEBIZITZA**
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa

**2. MOTORRA**
2.1. Salgai

**3. LOKALAK**
3.1. Salgai
3.2. Errentan

**4. LANA**
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila

**5. IRAKASKUNTZA**
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak

**6. DENETARIK**
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak


# 4. Lana

## 4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Edozein ordutegitan. Tel. 631-488692.
– Gizona eskaintzen da baserriak zaintzeko eta gidari eta sukaldari moduan jarduteko. Tel. 688-302653.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Esperientzia. Tel. 600-332954 eta 943-700229.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 633-229985.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 636-247429.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 664-009684.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Externa. Tel. 662-012834.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordutegi zabala. Tel. 634-005760 eta 603-221649.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 681-374525.
– Emakumea eskaintzen da garbiketak egiteko: etxeak, bulegoak, txokoak... Tel. 600-332954.
– Emakume euskalduna eskaintzen da lan egiteko. Tel. 606-502567.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. 8 urteko esperientzia. Externa. Tel. 638-230954.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Baita jaiegunetan ere. Tel. 690-199860.
– Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 617-844142.
– Neska euskalduna eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 617-571210.
– Neska eskaintzen da garbiketak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko orduka. Esperientzia. Tel. 626-197217.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta edozein lanetarako. Tel. 631-053696.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta edozein lanetarako. Tel. 602-865726.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 626-197217.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 619-041821 eta 943-744033.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Esperientzia. Tel. 600-332954 eta 943-700229.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 695-303237.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 606-354982.
– Emakumea eskaintzen da lan egiteko. Informeak. Tel. 638-233739 eta 654-600249.
– Emakumea eskaintzen da lan egiteko. Informeak. Tel. 696-770120 eta 603-282700.
– Emakumea eskaintzen da edozein ordutegitan lan egiteko. Tel. 603-282700.

## 4.2. Langile bila

– Sukaldari laguntzailea behar da Eibarko jatetxe batean. Esperientziarekin. Bidali curriculum-a 46 postakutxatilara.
– Sukaldaria eta kamarereoa behar dira Eibarko taberna batean. Bidali curriculum-a davidtubolab@gmail.com helbidera.

# 6. Denetarik

## 6.1. Salgai

– Hiru plazadun sofa salgai. Beigea, chesloi-arekin eta etzangarria. Oso merke. Tel. 943-043008.
– Vaporetto Polti salgai. 230w potentziakoa, 2.250w galdara-potentzia. Tel. 943-202042.
– VRC Conor Shimano bizikleta salgai. 20 abiadura. Ia berria. Tel. 943-200680 eta 634-425792.
– Binilozko diskoak, LP-ak eta single-ak erosten ditut. Tel. 943-572057.
– Lehen jaunartzea egiteko traje marineroa salgai. Beige kolorea, 14 neurrikoa. 75 euro. Tel. 630-686469.
– Sofa marroia salgai. 3 plazakoa. Cheslong -2'70-, somier -1,35-, relax laminak -1'35x1,90 eta koltxoia. Tel. 645-007388.

# ZATOZ GASTEIZA, EGUBERRIEN GOXOTASUNAZ GOZATZERA!

VITORIA GASTEIZ green capital



**IZOTZ-PISTA ETA IZOTZ-TXIRRISTA FLORIDAKO JAIOTZA IKUSGARRIA MUSIKA KALEAN ETA HIRIKO DENDA ONENAK EROSKETAK EGITEKO HAUR TAILER LUDIKOAK ARGIZARI GAUA GAINERA, ABENDUAREN 21 ETA 23AN ETA URTARRILAREN 3 Y 4EAN DENDAK EGUARDIETAN IREKITA EGONGO DIRA. PARKING ZERBITZUA IRADIER ARENAN DOAN**



argazkia: Daniel Llano



argazkia: Iñigo Montoya



argazkia: Daniel Llano

## Zer da Gasteiz On?

Gasteizko hiriguneko denden elkarte bat da. Denetariko dendak –arropa, jostailuak...–, tabernak, jatetxeak, gure hiriaren erdialdean. Elkartearen barruan ze negozio dauden jakiteko, webgunean kontsultatu: www.gasteizon.com.

**INFORMAZIO GUNEAK**

**NON DAUDE INFORMAZIO GUNEAK?**

Arka plaza
San Frantzisko kalea
Ricardo Buesa kalea

## Gasteiz On-en erosteak oparia dakar

Gasteiz ONeko dendetan 20 euro baino gehiagoko erosketak eginda, eta Informazio Guneren baten tiketak aurkeztuta, opari hauetako bat jasoko duzu:

- Izotz-pistarako sarrerak
- Paketeria iraunkorra
- Kontsigna zerbitzua

**ORDUTEGIA**

12:00- 14:00 / 18:00 - 21:00
24an eta 31n, 20:00ak arte

## Doan!

**3 EUROKO BONUA PARKINGEAN, KUPOI HAU AURKEZTUTA**

Kupoi hau eta zure aparkamendu-tiketa Informazio Guneren baten aurkeztuta, doan lortuko duzu hiru euroko bonu bat Amarikako, Katedraleko, Juan Aialako eta Europako parking publikoetan erabiltzeko.

Antolatzailea

gasteiz on

Babeslea

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

bista eder
clinica dental - hortz klinika

# Asko dira
## gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak

*Gabon zoriontsuak*



innovadental Clinicas

**20.000tik GORA PAZIENTE** ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko
arreta jaso dezazun



**Createch Medical-en**
etorkizuna gerturatzen dizugu,
inplanteetan egiturak egiten espezializatutako
gure enpresa berritzailearekin



R.P.S. 53/13

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN

bista eder
clinica dental - hortz klinika

Bista Eder, 19 - Bajo
20600 **Eibar**

Tel: **943 70 00 82**
mail: bistaeder@innovadentalclinicas.com
www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN

innovadental [Azpeitia clinica dental - hortz klinika]

José de Artetxe, 5
20730 **Azpeitia**

Tel: **943 02 59 55**
mail: innovaazpeitia@innovadentalclinicas.com
www.innovadentalclinicas.com